

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**4907** *4/2021 Lege Organikoa, martxoaren 29koa, zeinaz Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen baita, jarduneko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzeko.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege organiko hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

Arau honen xedea da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari zer araubide juridiko aplikatu behar zaion ezartzea organo konstituzional horren osaera Konstituzioak ezarritako epean berritzen ez denerako eta berritu arte jardunean jarraitu behar duenerako.

Kontseilukideen agintaldiaren iraupena argi eta garbi zehazten du Espainiako Konstituzioak, 122.3 artikuluan: «Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia osatuko dute Auzitegi Goreneko lehendakariak, bera buru izanik, eta Erregeak bost urterako izendatutako hogeitaz kidek».

Era berean, Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 570.2 artikuluan, epe hori kide berririk izendatu gabe amaitzearen ondoriozko egoera aipatzen da, eta hau adierazten: «Ganberetako batek ere ez baditu dagozkion bokalak izendatu legez ezarritako epean, aurreko Kontseiluak jardunean segituko du berria karguaz jabetu arte, eta ezin izango da bitartean hautatu Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidente berria».

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak ez badira berritzen haren gehieneko agintaldia amaitu aurretik, ezohiko egoera gertatzen da, argi dago, eta, horregatik, aldi horretan aplikatu beharreko araubide juridikoa ezin da izan ohiko jardunaldian aplikatu beharreko bera. Desberdintasun horren erakusgarri da agintaldia gainditzen duen kontseilua izendatzeko Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoan erabiltzen den terminologia; izan ere, hura aipatzeko, «kargua uzten duen kontseilua» erabiltzen da aurrerantzean, eta, beraz, «jardunean» baino ez du jarraitzen. Hala eta guztiz ere, eta beste organo konstituzional batzuekin gertatzen denaz bestera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren kasuan, ez dago gai horri buruzko aurreikuspenik 6/1985 Lege Organikoaren artikulua horretatik harago. Gobernuak edo Gorte Nagusiek, adibidez, erregulazio xehe-xehea daukate hurrenez hurren jardunean edo deseginda daudenean nola jardun behar duten zehazten duena.

Hutsune juridiko hori, zalantzarik gabe, Estatuaren diseinu konstituzionalaren gabezia bat da, eta zuzendu egin behar da. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia agintaldia amaitu orduko berritzea izango litzateke onena beti. Nolanahi ere, araubide juridiko oso eta egoki bat izan behar da egoera hori gertatzen ez denerako. Kasu horietarako araudi egokia izatea oinarrizko bermea da Justizia Administrazioak behar bezala funtziona dezan, eta

berritzea errazteko bitarteko bat ere bada, baina, batez ere, funtsezkoa da organoak legitimotasunik ez galtzeko.

Ez da ahaztu behar, Botere Judizialaren gobernu-organo gorenaren den aldetik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia funtsezkoa dela gure zuzenbide-estatuaren erakunde-diseinuan. Eta ez bakarrik jurisdikzio-ahala erabiltzen dutenen independentzia bermatzen duelako, baita Estatuaren hirugarren botereari legitimotasun demokratikoa ematen diolako ere.

Horregatik guztiagatik, mugatu egin behar dira kargua uzten duten kontseiluek hartzen dituzten erabakiak, kontseilukideek Konstituzioaren araberrako agintaldia gainditu baitute. Hala, Kontseiluaren eskumen-eremutik kanpo geratu behar dira zenbait ahalmen hura jardunekoak denean. Esate baterako, kargu hauek izendatzea proposatzea: Auzitegi Goreneko presidentea, auzitegi-tako presidentek, justizia-auzitegi nagusietako eta Auzitegi Nazionaleko presidentek, Auzitegi Goreneko sala-presidentek eta magistratuak eta Konstituzio Auzitegi-tako magistratuak. Kontseilua epe barruan ez berritzearen salbuespenaren ondoriozko muga logiko horiek Eskola Judizialeko eta Dokumentazio Judizialeko Zentroko zuzendarien izendapenari ere ezarri behar zaizkio, baita Auzitegi Goreneko presidenteordearen, Diziplina Ekintzaren sustatzailearen, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Kabinete Teknikoaren zuzendariaren eta Epaitegi-tako Ikuskaritzako buruaren izendapenari ere.

Aldiz, organoaren funtzionamendu normala bermatzeko beharrezkoak diren ahalmenak, kontseilu berriaren eskumen legitimoetan eskua sartzeari ez dakartenak, berriaz jasotzen dira arau honek jarduneko Kontseiluari ematen dion araubide juridikoan. Horrela, Kontseiluaren funtzionamenduan geldialdirik ez izatea bermatzen da.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia ez da organo jurisdikzional bat. Hala balitz, ezin izango litzateke gelditu haren jardura eta ezin izango litzateke eten haren eskudantzi-tako bat bera ere. Horregatik, bereizketa hau egin daiteke: batetik, epaitegiak eta auzitegiak gobernatzeko eta haiek egoki funtzionatzeko jarduneko Kontseiluak ezinbestekoak dituen ahalmenak, eta, bestetik, sartzan den kontseiluari edo kontseilu berrituari —eta ez irteten den kontseiluari— legez egokitu behar zaizkion eskumen eta eskudantzien sorta osatzen dutenak.

**Artikulu bakarra.** *Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzea.*

Aldatu egiten da Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. 570 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«570 bis artikulua.

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, legez ezarritako epean berritzen ez bada eta ondorioz jardunean segitzen badu, eskudantzia hauek baino ez ditu edukiko, 570. artikulua-ren 2. apartatuan aurreikusitakoarekin bat etorritik:

1.a Gobernuak berari entzutea Estatu-tako fiskal nagusia izendatu aurretik.

2.a Epailen eta magistratuen hautaketan parte hartzea, legez aurreikusitako moduan.

3.a Dagokiona ebaztea epaile eta magistratuen prestakuntzaz eta hobekuntzaz, destino-esleipenez, araututako maila-igoerez, administrazio-egoerez eta diziplina-araubidez.

4.a Auzitegi-en goi-ikuskaritzan jardutea eta auzitegi-tako presidenteen eta gobernu-salen ohiko ikuskaritzaz-jardura gainbegiratzea eta koordinatzea.

5.a Auzitegi Gorenak eta gainerako organo judizialek emandako epaiak eta hala erabakitzen den gainerako ebazpenak modu ofizialean argitaratzeaz arduratzea.

6.a Eskola Judizialaren funtzionamendua bermatzea eta haren prestakuntza-programak eguneratzea.

7.a Erregelamenduak egiteko ahala erabiltzea arlo hauetan:

- a) Jarduketa judizialen publikotasuna.
- b) Ebazpen judizialak argitaratzea eta berrerabiltzea.
- c) Egunak eta orduak baliodun bihurtzea eta entzunaldi publikoetarako orduak zehaztea.
- d) Organo judizialak beren egoitzatik kanpo eratztea.
- e) Jurisdikzio-organoen guardia-araubidea.
- f) Espainiako organo judizialen jardura antolatzea eta kudeatzea barneko eta nazioarteko lankidetzaren arloan.
- g) Epaileen eta magistratuen estatutuko eskubide eta betebeharrak baliatzeko baldintza osagarriak, eta elkarte judizialen araubide juridikoa; nolana ere, erregelamendu bidezko garapen horrek ezin du ekarri legezko erregulazioa berritza edo aldatzea.

8.a Bere zerbitzura diharduten funtzionarioen lanpostu-zerrenda onestea.

9.a Justizia Administrazioaren eremuan, datuak babesteko arloan, lankidetzan aritzea kontrol-agintaritzarekin.

10.a Herritarrek Justizia Administrazioarekin zerikusia duten gaitan aurkezten dituzten kexak jasotzea.

11.a Bere aurrekontua prestatzea eta gauzatzea, lege organiko honetan aurreikusitako moduan.

12.a Organo judizial jakin batzuetan beharrezkoak diren neurri indargarriak proposatzea, haien beharra justifikatu ondoren.

13.a Txostena egitea Justizia Administrazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondoriozko ondare-erantzukizunaren espedienteetan.

14.a Etika judizialaren printzipioak biltzea, eguneratzea eta zabaltzea, eta Estatuko eta nazioarteko beste entitate edo antolakunde judizial batzuekin sustatzea.

15.a 561. artikuluan xedatutakoaren arabera dagozkion txostenak egitea lege-aurreproiektuei eta xedapen orokorrei buruz.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, jarduneko Kontseiluak organoaren ohiko funtzionamendua bermatzeko ezinbestekoak diren gainerako jarduketak egin ahal izango ditu».

Bi. 598 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«598 bis artikulua.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia jarduneko denean, 570.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Kontseiluko presidentek ezin izango du erabaki ez Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko idazkari nagusia eta ez idazkariorde nagusia kargutik kentzea».

**Azken xedapen bakarra.** *Indarrearantz jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrearantz.

Horrenbestez,  
Lege organiko hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2021eko martxoaren 29an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN